

BREXIT ETA MUGIKORTASUNA: ERRESUMA BATUAN LAN EGIN ETA BIZITZEA, ETA HERRIALDEA BISITATZEA

basque
trade &
investment

2021eko apirila

+ Erresuma Batuko bulegoa



**BasqueTrade
& Investment**

Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO
spri
TALDEA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
BASQUE GOVERNMENT



EDUKIEN AURKIBIDEA

1. ERRESUMA BATUAN LAN EGITEA: PUNTU BIDEZKO IMMIGRAZIO-SISTEMA BERRIA.....	4
1.1. Laneko bisa motak	4
1.2. Lekualdatutako langileen araubidea	9
1.3. Bisa lortzeko eskaeren tarifak	9
1.4. Erresuma Batuko osasun-sailari errekaratu bat ordaintzea bisa-eskaeraren barruan (IHS)	9
1.5. Nola baliozkotu daitezke EBko titulu profesionalak?	11
2. Erresuma Batura bidaiatzea EB-ko, EEE-KO ETA Suitzako herritar gisa	13
2.1. Erresuma Batuan sartzeko balio duten dokumentuak	13
2.2. Negozio-bidaia Erresuma Batura	13
2.3. Erresuma Batura bidaiatzen duten EB/EEE/Suitzako herritarrek osasunerako sarbidea izatea	15
2.4. Erresuma Batura ondasunak, animaliak eta dirua ekartzea	16
2.5. Erresuma Batuan gidatzea	18
2.6. Telefono mugikorra erabiltzea: ibiltaritza	19
3. EU Settlement Scheme	20
3.1. Settled Status	20
3.2. Pre-Settled Status	21
3.3. Pre-Settled eta Settled Status estatusekin lortzen diren eskubideak	21
3.4. Familia-bisa motak	24
3.5. Ordainketa-tasak	25
3.6. Nola egin eskaera	25



TAULEN AURKIBIDEA

1 taula: Puntu bidezko immigrazio-sistema	4
Tabla 2: Gutxieneko soldataren atalasea	8



1. ERRESUMA BATUAN LAN EGITEA: PUNTU BIDEZKO IMMIGRAZIO-SISTEMA BERRIA

Erresuma Batuko puntuetan oinarritutako sistemak berdin tratatzen ditu EBko eta EBtik kanpoko herritarrak, eta Erresuma Batuko ekonomian lagundu dezaketen pertsonak erakartzea du helburu.

Irlandako Errepublikako herritarrak salbuespen bat dira, eta Erresuma Batua askatasunez bisitatzen, eta bertan bizitzen eta lan egiten jarrai dezakete.

Duela urte askotatik, Irlandako Errepublikak [Common Travel Area](#) (CTA) izeneko zirkulazio libreko akordio bat du Erresuma Batuekin eta Koroaren dependentziekin (Guernseyko Bailegoa, Jerseyko Bailegoa eta Man uhartea).

CTAren barruan, Erresuma Batuko zein Irlandako Errepublikako herritarrek askatasunez zirkula dezakete eta edozein jurisdikziotan bizi daitezke. Bi lurraldeetako herritarrek elkarrekiko eskubideak eta pribilegioak dituzte, hala nola, lan egiteko, ikasteko eta hauteskunde batzuetan botoa emateko eskubidea, baita eta gizarte-segurantzarako eta osasunerako sarbidea ere, beste jurisdikzioan bizi direnean.

Akordio horrek indarrean jarraituko du 2021eko urtarrilaren 1aren ondoren, eta, beraz, Irlandako Errepublikako herritarrek estatus berbera izaten jarraituko dute; horrek esan nahi du ez dutela bisa bat beharko Erresuma Batuan sartzeko edo bertan egoteko.

Puntu bidezko immigrazio-sistema ere ez zaie aplikatzen 2020ko abenduaren 31 baino lehen Erresuma Batuan bizi ziren EBko herritarrei. Bai haiek eta bai haien senitartekoek 'EU Settlement Scheme' eskatu dezakete, eta 2021eko ekainaren 30era arte dute eskaera aurkezteko aukera.

1.1. Laneko bisa motak

1.1.1. Langile kualifikatuentzako bisa (Skilled Worker Route)

Puntu bidezko immigrazio-sistema berriaren barruan, gutxienez [70 puntu](#) lortu beharko dira 'langile kualifikatuaren' ('[Skilled Worker Visa](#)') laneko bisa lortu ahal izateko.

1. taula: puntu bidezko immigrazio-sistema

Ezaugarriak	Nahitaezkoa	Puntuak
Onartutako babesle/enplegatzaile batek eskainitako lana	Bai	20
Kualifikazio-maila egokia duen lana ¹	Bai	20
Eskatutako gutxieneko ingeles-maila izatea ²	Bai	10
20.480 eta 23.039 £ arteko soldata edo gutxienez lanbidearen tarifa estandarraren % 80 (handiena dena)	Ez	0
23.040 eta 25.599 £ arteko soldata edo gutxienez lanbidearen tarifa estandarraren % 90 (handiena dena)	Ez	10
25.600 £-ko soldata (edo gehiago) edo gutxienez lanbidearen tarifa estandarra (handiena dena)	Ez	20
Migration Advisory Committee batzordeak izendatutako langile gutxi dituen sektore bateko lana ³	Ez	20
Hezkuntza-titulua (education qualification): Doktoregoa lanerako garrantzitsua den gai batean	Ez	10



Ezaugarriak	Nahitaezkoa	Puntuak
Hezkuntza-titulua (education qualification): Doktoregoa lanerako garrantzitsua den STEM (zientzia, teknologia, ingeniari-tza edo matematika) gai batean	Ez	20
Guztira 70 puntu behar dira 'Skilled Worker Visa' eskatzeko; ezaugarri batzuk ez dira nahitaezkoak		

Iturria: <https://www.gov.uk/government/publications/uk-points-based-immigration-system-employer-information/the-uks-points-based-immigration-system-an-introduction-for-employers#a-total-of-70-points-is-needed-to-be-able-to-apply-to-work-in-the-uk>
(Itzulpena: BT&I)

1. Kualifikazio-maila egokia¹

Kualifikazio-mailak [RQF 3](#) mailakoa edo handiagoa izan behar du (A-Level¹ edo baliokidea)

[UCAS²](#) erakundearen eta [University of Brighton](#) eta [University of Surrey](#) bezalako unibertsitateen arabera, hori Espainiako Batxilergoko Titulu baten baliokidea izango litzateke. Gobernu britainiarren webgunean kanpoko estekak jarri dira baliokidetasunak kontsultatzeko ([ikusi esteka](#)).

2. Nola frogatu ingelesaren ezagutza²

Oro har, ingelesaren ezagutza frogatu beharko da eskaera aurkezten denean, aurreko bisa-eskaera batean egin ez bada.

[Ingeles-mailari dagokionez](#), eskatzaileak frogatu behar du **gutxienez B1 mailan** irakurri, idatzi, hitz egin eta ulertu dezakeela ingelesa, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren (EEMB) eskalan.

Ingelesaren ezagutzak baldintza hauetakoren bat bada frogatu daitezke:

- Ingeles-azterketa bat (Secure English Language Test SELT) gainditzea, [baimendutako hornitzaile](#) batek egindakoa.
- GCSE³, A-level, Scottish National Qualification azterketa edukitzea, 4. edo 5. mailakoa, Scottish Higher edo Advanced Higher ingelesez.
- Ingelesez emandako unibertsitate-graduoko titulu akademiko bat lortu izana; atzerrian ikasi izanez gero, [Visas and Nationality](#) zerbitzuaren bidez egiaztatu beharko da titulua Erresuma Batuko [lizentziatura](#), [master](#) edo [doktorego](#) baten baliokidea dela.

3. Langile gutxi dituen sektore batean lan egitea³

Gaur egun, Erresuma Batuan sektore batzuetan jendea behar dute, langile gutxi daudelako. Lan horiek aldatu egiten dira arloaren eta sektorearen arabera, eta, beraz, gobernuak enpleguen zerrenda bat argitaratu du, sektoreka eta arloka banatuta ([ikusi zerrenda](#)).

Osasunaren eta hezkuntzaren kasuan, langile gutxi dituzten enpleguen zerrenda desberdina da ([ikusi zerrenda](#)).

¹ Advanced Level (A-level), 1951n ezarritakoa, hautazko titulu multzo baten izena da, Ingalaterrako, Galesko eta Ipar Irlandako ikasleek egiten dutena Bigarren Hezkuntzako azken bi urteen amaieran. Eskozian, azterketa hori Highers izenez ezagutzen da (baita goi-mailako modalitatean ere, Advanced Highers).

² UCAS Bigarren Hezkuntza ondoko unibertsitaterako eta unibertsitatez kanpoko hezkuntzarako onarpen-zerbitzu britainiarra da.

³ GCSE, Bigarren Hezkuntzako Ziurtagiri Orokorra (ingelesean: General Certificate of Secondary Education edo GCSE siglarekin) titulu britainiarren multzo bat da, Gales, Ingalaterra eta Ipar Irlandako bigarren mailako eskoletan 15 eta 16 urte bitarteko ikasleei egindako azterketen bidez lortzen dena (Eskozian, Gradu Estandarra da baliokidea)



1.1.1.1 Nola egin bisa-eskaerak

Eskaerak [online](#) hasi daitezke, baina pertsona batzuek bisak eskatzeko zentro bat bisitatu beharko dute beren nortasuna frogatzeko eta beharrezko dokumentuak erakusteko. Adibidez, pasaporteak txip biometrikorik ez duenean edo 'UK Immigration: ID Check app' aplikazioan sartu ezin denean [nortasuna frogatzeko](#). Dokumentazio hori erakusteko moduari buruzko informazioa [eskaera egitean](#) emango zaie.

1.1.1.2 Beharrezko dokumentazioa

Skilled Workerrek bisarako eskaera aurkezten denean, honako hauek [aurkeztu beharko dira](#)⁴:

- Erakunde enplegataileak/babesleak emango duen babesletza-ziurtagiriaren erreferentzia-zenbakia.
- Ingelesaren ezagutzaren froga bat.
- Baliozko pasaporte edo nortasuna eta nazionalitatea erakusten duen beste dokumentu bat.
- Lanpostua eta urteko soldata.
- Lanaren okupazio-kodea ('occupation code' ingelesez). ([Esteka](#), horiek kontsultatzeko)
- Enplegatailearen izena eta babesle-lizentziaren zenbakia; hori babesletza-ziurtagirian jasoko da.

1.1.1.2.1 Kasu batzuetan beharrezkoa izan daitekeen dokumentazioa

Egoera batzuetan, eskatzaileari dokumentu hauek eskatu ahalko zaizkio:

- Erresuma Batuan ekonomikoki irauteko [aurrezki pertsonal nahikoak](#) dituela frogatzen duen ebidentzia, adibidez, bankuko laburpenak (salbu eta babesletza-ziurtagiriak frogatzen badu enplegataileak mantendu dezakeela).
- Tuberkulosi-proba baten emaitzak, zerrenda honetako herrialderen batetik etorriz gero ([ikusi esteka](#)).
- Lan batzuetan aurrekari penalen ziurtagiria beharko da; adibidez, hezkuntzarekin lotutako lanetan.
- Doktorego-ziurtagiria, Erresuma Batuan lortu bada, edo Ecctis delakoaren erreferentzia-zenbakia (lehen UK NARIC izenarekin ezagutzen zena) titulua Erresuma Batutik kanpokoa bada; zenbaki hori Visas and Nationality Service zerbitzuaren bidez eskatu beharko da, Ecctis webgunearen bitartez ([ikusi esteka](#)).
- [Bikotekidearekiko edo seme-alabekiko](#) harremanaren froga, eskaera eskatzailearekin batera egiten badute. 'Skilled Worker Visa' dutenen baimendutako senitartekoei 'dependant partners' deitzen zaie, eta halakotzat jotzen dira honako hauek:
 - o Ezkontideak.
 - o Batasun zibileko bikoteak.
 - o Ezkontuta ez dauden eta batasun zibilik ez duten bikoteak.
 - o Eskaera egin zen unean 18 urte baino gutxiago zituzten seme-alabak.

Zerrendan ez dauden senitartekoei, hala nola gurasoei eta aitona-amonei, [ezin dute eskatu bisa mota hori duen senitarteko batekin elkartzea](#)⁵.

Bisa egiteko, orrialde zuri bat beharko dute pasaportean, baldin eta:

- EBtik, Suitzatik, Norvegiatik, Islandiatik edo Liechtensteindik kanpokoak badira

⁴ Eskatzaileak enplegu-emaileari babesletza-ziurtagiriaren kopia bat eskatu beharko dio, halakorik ez badu. Dokumentu guztiak ingelesera itzuli beharko dira.

⁵ aholkularitza legalek emandako informazioaren arabera ([Bindmans, Lexology](#) eta [OTS Solicitors](#)), mendeko helduaren bisa (Adult Dependent Relative visas) duten senitarteko helduak ekar daitezke, baina soilik muturreko kasuetan eta frogatu ahal bada senitarteko horiek ezin dituztela oinarritzko jarduerak egin (jan, higiena mantendu, etab..) eta [ez badute laguntzeko inor jatorrizko herrialdean](#) (hurbileko eta urruneko senitartekoak, zaintzaileak eta osasun-langileak barne, besteak beste).



- EBkoak, Suitzakoak, Norvegiakoak, Islandiakoak edo Liechtensteingoak badira eta txipa duen pasaporte biometrikorik ez badute.

Dokumentuak ingelesez edo galesez ez badaude, **itzulpen ziurtatua ere eman beharko da.**

'Adult Dependent Relative Visa' dokumentua lortzeko zailtasuna dela eta, gomendatzen da senitartekoek bisitari-bisa eskatzea, '[Long Term Standard Visitor Visa](#)' izenekoak, EBtik kanpokoak badira. Bisa hori 2, 5 edo 10 urterako izan daiteke, baina bisita bakoitzak ezin du 6 hilabete baino gehiago iraun jarraian. EBkoak badira, bisarik gabe sartu ahal izango dira bisitari gisa, baina bisitak ezingo du 6 hilabete baino gehiago iraun jarraian.

1.1.1.3 Bisaren kostua

'Skilled Worker Visa' eskatzeko orduan, honako ordainketa hauek egin beharko dira:

- Eskaera-tasa ordaintzea: tasa estandarra 610 eta 1.408 libera esterlina artekoa da, eskatzailearen inguruabarren arabera. Hala ere, eskatzailea herrialde hauetakoren batekoa bada ([ikusi zerrenda](#)), ordainketa-tasa 55 libra murriztuko da automatikoki eskaera egitean. [Langile gutxiko sektore batekoak](#) direnek ere gutxiago ordaindu beharko dute.
- Osasuneko errekgua ordaintzea (IHS edo Immigration Health Surcharge ingelesez), normalean urtean 624 librako balioa du. Gobernu britainiarrek online baliabide hau ireki du kalkulua egiteko (ikusi [esteka](#)).
- Eskatzaileak frogatu beharko du, halaber, [ekonomikoki irauteko adina diru baduela](#), honako kasu hauetan izan ezik:
 - o Aurretik Erresuma Batuan gutxienez 12 hilabetez bisa baliodun batekin bizi izana.
 - o Enplegatzaileak gastuak ordaindu ahal baditu Erresuma Batuko lehen hilabetean (1.270 libera arte). Hori guztia babesletza-ziurtagirian baieztatu beharko da, 'sponsor certifies maintenance' atalean.

Eskatzaileari berretsi egingo zaio bisa-eskaera egitean ordaindu behar duen zenbatekoa. Bisaren kostuari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, [esteka hau](#) erabil daiteke:

1.1.2. Global Talent Scheme-a

[Programa hau](#) EBko, EEKko eta Suitzako herritarrentzat ireki da. Kualifikazio handiko zientzialari eta ikertzaileei Erresuma Batuan lan egiteko aukera ematen die, lekualdatu aurretik lan-eskaintzarik izan gabe.

1.1.3. Graduate Route-a

Erresuma Batuan 2021eko uztailaren 1etik aurrera titulu akademiko bat ([UK Bachelor's Degree edo maila handiagoa](#)) lortu duten ikasle atzerritarrentzat egongo da eskuragarri. Edozein enplegu eskuratzeko aukera emango zaie, kualifikazio-maila edo soldata edozein dela ere, titulua lortu eta hurrengo **bi urteetan**, eta ez da beharrezkoa izango babesletza izatea.

Doktoregoa lortzen duten ikasle atzerritarrek Erresuma Batuan **hiru urtez** bizitzeko eta lan egiteko eskubidea izango dute, babesletzarik behar izan gabe.

1.1.4. Enpresa barruko transferentzia-bidea (ICT)

Enpresa barruko bisa (Intra-Company Transfer ingelesez) bati esker, profesionalak Erresuma Batuan jarraitu ahal izango dute lanean, atzerriko enpresa baten filial britainiarrean.

Honako baldintza hauek bete behar dira enpresa barruko bisa bat lortzeko:

- Enplegatzailearen baliozko babesletza-ziurtagiri bat izatea (Certificate of Sponsorship).



- Enplegatzailearentzat edo babeslearentzat Erresuma Batutik kanpo lan egin izana, eskatzailea 'high earner' delakotzat hartzen denean izan ezik (ikusi beheko taula).
- Lanbide egokien zerrendan dagoen lanpostu bat izatea (kontsultatu [esteka](#)).
- Lanerako eskatzen den gutxieneko soldata jasotzea (ikusi beheko taula).

Eskatzaileek RQF 6rako (graduondoko mailaren baliokidea) kalifikatutako lanpostuetan egon behar dute, baita 'Skilled Worker Visa' delakoarena ez den gutxieneko soldata-atalasean ere. Bestalde, 'Skilled Worker Visa' bisarekin ez bezala, enpresa barruko bisa eskuratzeko [ez da beharrezkoa izango ingeleseko proba bat egitea](#).

2. taula: Gutxieneko soldata-atalase desberdina

Eskatzen den bisa	Enpresa enplegatzaile/babeslearentzat Erresuma Batutik kanpo lan egindako gutxieneko denbora	Gutxieneko soldata (<u>gordina</u>)
Intra-company Transfer (urtean 73.900 £ baino gutxiago irabazita)	12 hilabete	41.500 £ edo soldata-tarifa estandarra ; bien arteko zifra handiena
Intra-company Transfer (urtean 73.900 £ edo gehiago irabazita) – 'High earners' izenekoak	Ez dago gutxieneko denborarik	73.900 £ urtean
Intra-company Graduate Trainee (bekadunentzat)	3 hilabete	23.000 £ edo soldata-tarifa estandarraren % 70*; bien arteko zifra handiena
Behin okupazio-kodearen (occupation codes) 4 digituak ezagututa, esteka honetan egiazta daitezke enplegu bakoitzaren soldata-tarifa estandarrek.		
*OHARRA: tarifa estandarrean agertzen den urteko soldata asteko 39 orduko ordutegiaren arabera da. Soldata kontratuan adierazitako asteko lanorduen arabera aldatu beharko litzateke.		
ICT bisari buruzko datu gehiago nahi izanez gero, esteka hau dago eskuragarri:		

1.1.5. Laneko bisa lortzeko beste bide batzuk

1.1.5.1. *Start-up eta Innovator*

[Bi bideak](#) talentu ekintzailea eta negozio-idea berritzaileak erakartzeko diseinatuta daude, Erresuma Batura eskala handian eraman daitezkeenak.

- **Start-up** lehen aldiz negozio berritzaile bat sortu dutenentzat da.
- **Innovator** industrian esperientzia duten eta gutxienez 50.000 libera esterlinako finantzaketa dutenentzat da.

Eskatzaileak norbanakoak edo taldeak izan daitezke.

1.1.5.2. *Osasun-langileentzako bisa*

[Bisa hori](#) langile kualifikatuen bidearen parte da: 'Skilled Worker Visa'. Pertsoneri Erresuma Batura etortzeko aukera ematen die, betiere osasunarekin lotutako lanpostuak badituzte edo NHS⁶ erakundearen, arreta sozialaren sektorearen edo NHS erakundeari zerbitzuak ematen dizkieten erakunderen baten lan-eskaintza bat badute. Bisa eskatzeko, beharrezkoa izango da [ingeleseko B1 maila edukitzea](#).

⁶ NHS (National Health Service ingelesez), Erresuma Batuko osasun-sistema publikoa da



1.1.5.3. *Sormen-industrietako langileentzako bisa*

Bide hori Erresuma Batura bidaiatuko duten sormen-industrietako langileentzat da, baldin eta epe laburreko edo 12 hilabetera arteko kontratuak badituzte. Bisa hori eskatzeko, beharrezkoa da lan-eskaintza baieztatu bat eta Home Office delakoak baimendutako Erresuma Batuko enplegatzaile/babesle batek babestutako enplegu bat izatea.

1.1.5.4. *Eliteko kirolarientzako bisa*

Nazioarteko kirolariek ere lan-eskaintza egiaztatua izan behar dute, eta Home Office delakoak baimendutako Erresuma Batuko enplegatzaile/babesle batek babestu behar du enplegua. Gainera, bisa hori jaso nahi duten kirolariek euren kirol-erakundearen babesa izan behar dute.

1.1.5.5. *Seasonal Workers Pilot*

Programa hori gaur egun gauzatzen ari dira 2021. urtearen amaierara arte, eta aukera ematen du aldi baterako langileen kopuru mugatu bat kontratatzeko baratze-sektoreko eginkizun espezifikoetarako. Plan pilotu horren bidez, [30.000 bisa](#) emango dira, eta, horiei esker, Erresuma Batutik eta Irlandatik kanpoko langileak kontratatu ahal izango dira, nekazaritza-sektorean sei hilabetera arte lan egiteko.

1.1.5.6. *Youth Mobility Scheme*

Erresuma Batutik kanpoko herritarrak enplegatu nahi dituzten enpresek ere jaso ditzakete [gazteen mugikortasun-plan horren](#) onurak. Erresuma Batuak akordioak ditu [bederatzi herrialde eta lurralderekin](#), urtero milaka gazteri Erresuma Batura bidaiatzeko eta bertan lan egiteko aukera ematen dietenak. Eskatzaileek 18 eta 30 urte artean izan behar dituzte, eta bi urtera arte egon ahalko dira han. Ez da enplegu-eskaintzarik beharko bisa hori eskuratzeko.

1.2. Lekualdatutako langileen araubidea

Akordioak [ez du arautzen lekualdatutako langileen araubidea](#), eta, beraz, lekualdatutako langileek gizarte-segurantzari egiten dizkioten ekarpenak ordaindu beharko lituzkete lan egiten duten herrialdean.

Nolanahi ere, akordioak aurreikusten duenarekin bat, aldi baterako neurri gisa, estatu kideek, Europako Batzordeari jakinarazi ondoren, lekualdatutako langileek [Brexit-aren aurretik zeukaten araubidearekin jarraitu ahal izango dute](#); horrek erraztu egingo luke langile horiek beren jatorrizko herrialdeetan gizarte-segurantzako kotizazioak ordaintzen jarraitzea. Aldi baterako neurri hori 15 urtera arte luza daiteke.

1.3. Bisa lortzeko eskaeren tarifak

Gobernu britainiarraren webguneak [esteka hau](#) jarri du eskuragarri 2020ko otsailaren 20an indarrean sartu ziren bisen tarifa berrietarako. Aurretik azaldu den moduan, tarifa horiei osasun-errekargua gehitu beharko zaie (bidezkoa denean), eta abokatu baten ordainsariak ordaindu beharko dira haren zerbitzuak eskatuz gero.

1.4. Erresuma Batuko osasun-sailari errekarigu bat ordaintzea bisa-eskaeraren barruan (IHS)

Lehen aipatu den bezala, batzuetan beharrezkoa izango da osasun-errekargu bat (Immigration Health Surcharge edo IHS ingelesez) ordaintzea bisa-eskaera egitean. Ordaindutako kopurua [immigrazio-estatusaren](#) edo [eskatzan den bisa motaren](#) arabera izango da.



1.4.1. Noiz ordaindu behar da?

Immigrazio-eskaera online egiten bada, errenergua eskaeraren zati gisa ordainduko da, edo hitzordua eskatzen denean. Bisa posta bidez eskatzen bada, errenergua ordaindu beharko da eskaera bidali aurretik. Beharrezkoa izango da IHS erreferentzia-zenbakia gehitzea eskabide-inprimakian.

1.4.2. Noiz has daiteke Erresuma Batuko Osasun Zerbitzu Nazionala (NHS) erabiltzen?

- Errenergua ordaintzean.
- Bisa edo immigrazio-estatusa onartzean.

IHS ordaindu izana gorabehera, zerbitzu batzuk aparte ordaindu beharko dira, [hala nola mediku-preskripzioak, hortz-tratamenduak, begi-azterketak](#) eta laguntza bidezko ugalketa.

1.4.3. Nola frogatu daiteke Erresuma Batuko osasun-sistamarako sarbidea?

- [Bizileku-baimen biometrikoa](#) erakutsi beharko da, hura edukiz gero.
- Immigrazio-estatusa formatu digitalean badago, estatus hori [frogatu](#) beharko da 'share code'⁷ bat erabilia

1.4.4. Nork ordaindu behar du?

[Osasun-errenergua ordaindu beharko dute](#)⁸ honako bisa edo immigrazio-estatus hau eskatzen dutenek:

- 6 hilabetetik gorako [iraupenekoa](#) Erresuma Batutik kanpo eskatzen bada
- [Edozein](#) iraupenekoa Erresuma Batuaren barruan eskatzen bada.

1.4.5. Nork ez du ordaindu behar?

Besteak beste, ez dute IHS ordaindu beharko honako pertsona hauek:

- Bisitari-bisa eskatzen dutenek (Visitor Visa).
- 6 hilabetetik beherako bisa eskatzen dutenek Erresuma Batutik kanpo.
- EU Settlement Scheme delakoaren barruan immigrazio-estatusa eskatzen dutenek.
- Indefinite Leave to Enter or Remain estatusa eskatzen dutenek ([ILE edo ILR](#)).

IHS ordaintzetik salbuetsita daudenen zerranda osoa ikusteko, sartu [esteka honetan](#).

1.4.6. Ordainketa-tasak

Gobernu britaniarrak [online baliabide](#) bat prestatu du IHS kalkulatzeko bisa motaren eta eskatzen den tokiaren arabera. Bisa-eskaerari [uko egingo zaio](#) IHS ordaintzen ez bada.

⁷ Share code bat 9 digituko zenbaki bat da, eta posta elektronik bidez bidaliko da immigrazio-estatusa online eskatzean

⁸ Nahitaezkoa da errenergua ordaintzea nahiz eta aseguru pribatua eduki.



1.5. Nola baliozkotu daitezke EBko titulu profesionalak?

1.5.1. 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen Erresuma Batuan lan egiten zuten profesionalak

2021eko urtarrilaren 1a baino lehenagotik Erresuma Batuan lan egiten zuten eta euren titulu profesionalak dagokien arau-esparruaren bidez baliozkotu zituzten pertsonak ez dute inolako aldaketarik izango.

Baldin eta 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen Erresuma Batuan lan egiteko noizbehinkako baimena ([temporary or occasional declaration to work in the UK](#)) bazuten, dagokien arau-esparruan aitortuta izan beharko dituzte euren tituluak.

1.5.2. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera Erresuma Batuan lan egin nahi duten profesionalak

Erresuma Batuak EBko, Suitzako, Norvegiako, Islandiako eta Liechtensteingo tituluak onartzen ditu, baldin eta Erresuma Batuko tituluen baliokidetasun-estandar berberak badituzte.

Ecctis erakundea arduratuko da, trantsizio-garai berritik aurrera, tituluen aintzatespenarekin, immigrazioarekin eta gaitasunarekin lotutako zerbitzu ofizialak kudeatzeaz gobernu britainiarraren izenean. Hauek dira haren webgunean kontsulta daitezken zerbitzu nagusiak (ikusi [esteka](#)):

- [UK ENIC](#), lehen UK NARIC izenarekin ezagutzen zena, nazioarteko kualifikazioak eta gaitasunak aintzatesi eta ebaluatzeko Erresuma Batuko Informazio Zentro Nazionala .
- [Visas and Nationality](#), titulu akademikoak Erresuma Batuko Bachelor's, Master's edo PhD batekin alderagarriak direla egiaztatzeko eta ingelesaren ezagutzak probatzeko bisa jakin batzuk izapidetzeko orduan. Bisen zerrenda eskuragarri dago haren webgunean (ikusi [esteka](#))
- [UK Centre for Professional Qualifications \(CPQ\)](#) arduratzen da titulu profesionalak aintzatesteko aholkularitza eta orientazioa emateaz, Brexitaren ondorengo [araudi berriaren](#) arabera. Profesionalek, erakunde profesionalak, enplegatzaileek eta [Sector Skills Councils](#) (SSC) direlakoek erabili ditzakete haren zerbitzuak.

UK Centre for Professional Qualifications (UK CPQ) erakundearen webgunean ikus daiteke Erresuma Batuan lanbide bat araututa dagoen ala ez eta lanbide horretan lanean jarraitzeko zer egin behar den, baita titulu profesionalen baliozkotzea ere (ikusi [esteka](#)).

Kontuan hartu behar da, halaber, zenbait erregulazio daudela lanpostu hauetarako:

- [Arkitektoak](#)
- [Auditoreak](#)
- [Abokatuak](#)
- [Osasun-langileak](#)
- [Albaitaritza-kirurgialariak](#)
- [Errementariak \(farriers\)](#)

Eraikuntzan, iturgintzan, elektrizitatean edo lurrean oinarritutako sektorean (land-based sector) lan egiten dutenek [esteka](#) hau bisitatu ahal izango dute beren kualifikazio-maila egiaztatzeko (ikusi [esteka](#)).

2021eko urtarrilaren 1a baino lehen egindako aintzatespen profesionalen eskaerak erretiratzeko akordioaren aurreko araei jarraituz izapidetuko dira. [Europako Txartel Profesionalaren \(TPE\)](#) eskaerak ere onartuko dira, baldin eta 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen egin baziren.



1.5.2.1. Nola izapidetuko dira eskaerak urtarrilaren 1etik aurrera?

Orain arte, Erresuma Batuko arautzaileek Internal Market Information System (IMI) sistemarako sarbidea zuten, baina Europako Batzordearen zerbitzu bat denez, haren bitartez ezin izango da eskaera berririk egin 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera; beraz, sektore bakoitzeko arautzaileek [UK ENIC](#) webgunean (lehen UK NARIC izenarekin ezagutzen zena) edo [UK CPQ](#) webgunean kontsultatu beharko lukete informazioa.

UK ENICek eskaintzen duen zerbitzuetako bat [Statement of Comparability](#) da; horren bidez, titulu profesional edo akademikoen baliokidetasuna egiten da, Erresuma Batuan lan egiteko, ikasteko eta profesionalki erregistratzeko. Ikasleek zein profesionalak erabil dezakete zerbitzu hori.



2. ERRESUMA BATURA BIDAIATZEA EB-KO, EEE-KO ETA SUITZAKO HERRITAR GISA

2.1. Erresuma Batuan sartzeko balio duten dokumentuak

Aurretik aipatu den moduan, Irlandako Errepublikako herritarrek Erresuma Batura sartzen eta bertan bizitzen jarrai dezakete; beraz, ez dute aldaketarik jasango.

EBko, EEEko eta Suitzako herritarrek Erresuma Batura bidaiatu dezakete oporretarako, bidaiak laburretarako eta 6 hilabetera arteko negozio-bidaietarako, bisa eskatu beharrik gabe. Erresuma Batuko muga gurutzatu ahal izango dute, Erresuma Batuko **egonaldi osoan baliozkoa izango den pasaporte** batekin.

Gaur egun, EBko, EEEko edo Suitzako **nortasun-agiri nazional bat** erabili ahal izango da Erresuma Batuan sartzeko **2021eko urriaren 1era arte, honako kasu hauetan izan ezik:**

1. Settled edo Pre-settled estatusa lortu bada [EU Settlement Scheme](#) delakoarekin bat (azalpena 3. atalean).
2. [Familia-baimen bat lortu bada EU Settlement Scheme delakoaren barruan.](#)
3. Mugako langilearen baimena lortu bada: [Frontier Worker Permit.](#)
4. Pertsonak honako estatus hau badu: [S2 Healthcare Visitor.](#)
5. Pertsona [Suitzako zerbitzu-hornitzailea bada.](#)

Dokumentu horietakoren bat lortu bada, herrialde bakoitzeko **nortasun-agiri nazionalak** Erresuma Batuan sartzeko balio du gutxienez **2025eko abenduaren 31ra** arte.

Egonaldiaren gehieneko iraupena **6 hilabetekoa da bisa bat eskatu beharrik gabe,** eta hainbat jardueratan parte hartzeko aukera dago: turismoa, senitarteko eta lagunen bisitak, iraupen laburreko ikasketak eta negozioekin lotutako zenbait jarduera (azalpena 2.2 atalean).

Gobernu britainiarrek [online baliabide](#) bat prestatu du turismoa, ikasketak edo lana dela-eta Erresuma Batura bidaiatu nahi dutenek bisa bat behar duten ala ez egiaztatzeko, euren inguruabar pertsonalen arabera⁹.

2.2. Negozio-bidaiak Erresuma Batura

EBko, EEEko edo Suitzako herritar batek iraupen laburreko negozio-bidaiak bat egiten badu Erresuma Batura, immigrazio-sistema berriaren barruan ez du bisarik eskatu beharko baldintza jakin batzuk betetzen badira.

Kasu gehienetan, 6 hilabetera arteko egonaldiak egin daitezke. Egonaldian, jarduera ugaritan parte har daiteke, negozioarekin lotutakoak barne, hala nola **bileretan,** **ekitaldietan** eta **konferentzietan.**

Negozio-bidaiak baten aurretik informazioa lortzeko, eskuragarri dago [esteka hau](#).

⁹ Bisarik behar ez duten bidaiak laburrei dagokienez (negozio-bidaiak barne), ez dago Erresuma Batuko egonaldiaren gehieneko aldirik, adibidez '6 hilabete 12 hilabetero' edo antzekorik, betiere ez bada 6 hilabeteko muga gainditzen bisita bakar batean. Edonola ere, bidaien historiala aztertzean hautematen bada pertsona batek Erresuma Batuan gelditu nahi duela epe luzerako edo Erresuma Batuan bizi nahi duela, herrialdean sartzea ukatu ahalko zaio.



Negoio-bisitari gisa, **debekatuta dago**:

- Ordaindutako edo ordaindu gabeko lana egitea Erresuma Batuko enpresa batentzat edo langile autonomo gisa.
- Lan-praktikak egitea.
- Jendeari zuzenean saltzea edo ondasunak eta zerbitzuak ematea.

2.2.1. Erresuma Batura bisarik behar izan gabe egindako negozio-bidaietan baimendutako jarduerak

Baliabide gehigarri gisa, gobernu britainiarren webgunean daude eskuragarri bisitarietzako arauak eta Erresuma Batuen bisitari gisa egin daitezkeen [jarduera komertzial eta akademikoen zerrenda osoa](#).

2.2.1.1. *Jarduera orokorrak*

Negoio-bisitari batek honako hauek egin ahal izango ditu:

- Bileretara, hitzaldietara, mintegietara edo elkarrizketetara joan; hitzaldiak edo diskurtsoak eman (behin edo serie labur batean), baldin eta ekitaldi komertzial gisa antolatzen ez badira eta antolatzaileari onurarik ekartzen ez badiote;
- akordio eta kontratuak negoziatu eta sinatu;
- merkataritza-azoketara joan, sustapen-lanetarako baino ez eta betiere bisitariak zuzenean saltzen ez badu;
- bisitak eta ikuskapenak in situ egin;
- atzerriko lanerako informazioa bildu;
- bezero britainiar baten baldintzei buruzko informazioa jaso, betiere bezeroarentzako enkargua Erresuma Batutik kanpo egiten bada.

2.2.1.2. *Enpresa barruko jarduerak*

Egoitza atzerrian duen enpresa bateko langileak honako hauek egin ahal izango ditu:

- aholkatu eta kontsultatu; arazoak ebatzi;
- prestakuntza eman;
- barne-proiektu jakin batean trebetasunak eta ezagutzak partekatu Erresuma Batuko enpresa-talde bereko langileekin, baldin eta bezeroekin zuzenean inolako lanik egiten ez bada. **Barne-auditore batek** erregelamendu- edo finantza-auditoriak egin ahal izango ditu, auditorearen atzerriko enplegatzailearen enpresa-taldeak Erresuma Batuan duen sukurtsal batean.

Salgaiak fabrikatzea eta Erresuma Batuari hornitzea: Atzerriko fabrikatzaile edo hornitzaile baten langile batek ekipamenduak edo software edo hardware informatikoak instalatu, desegin, konpondu, mantendu edo horiei buruz aholkatu ahal izango du, baldin eta enpresa edo erakunde britainiar batekin erosketa-, hornidura- edo errentamendu-kontratua badu.

Esportatzaile britainiarren bezeroak: Esportatzaile britainiar baten bezero bat enpresa horretara joan ahal izango da zerbitzu-eginkizunen araubidean, enpresak edo haren filialak hornitu beharreko produktu eta zerbitzuen baldintzak gainbegiratzeko, baldin eta bi enpresak ez badira talde berekoak. Salbuespen gisa, langileek hainbat bisita egin ahal izango dituzte kontratuaren iraupen osoan estaldura emateko.



2.3. Erresuma Batura bidaiatzen duten EB/EEE/Suitzako herritarrek osasunerako sarbidea izatea

NHSk, osasun-sistema nazionala denez, zerbitzua erabili nahi duten egoiliarrek lehenesten ditu. Horrek esan nahi du Erresuma Batuan bisitan daudenek agian ordaindu egin beharko dutela NHSren arreta medikoa jasotzeagatik, egoeraren arabera.

Zerbitzu batzuk, hala nola istripu eta larrialdietako zerbitzuak (A&E) eta familia-medikuarenera (GP edo General Practitioner) egindako bisitak, doakoak dira jende guztiarentzat.

Kasu batzuetan, tratamendua urgentea bada eta ezin bada itxaron pazienteak herrialdetik irten eta etxera itzuli arte, beti emango zaio eta erabili ahal izango da larrialdiko tratamendu medikoak (Medically Necessary Treatment) jasotzeko balio duen EOT¹⁰ bat. Medikuek baina ezin izango du erabaki tratamendua urgentea den edo berehalak eman behar den.

2.3.1. EOT baliozkoa izango da Brexitaren ostean?

Bai, akordio berriaren arabera, EBko kide diren herrialdeek emandako EOTak [Britainia Handiko Osasun Sistema Nazionalak](#) (NHS ingelesez) [onartzen jarraituko du](#).

2.3.2. Zer zerbitzu estaliko ditu EOTak Brexitaren ostean?

EBko bisitari batek bere jatorrizko herrialdeak emandako baliozko Osasun Txartel bat erabili dezake Erresuma Batuan aldi baterako dagoen bitartean, [honako kasu hauetan](#):

- Egonaldian zehar gaixotu egiten bada edo istripuren bat izaten bada.
- Lehendik zeuden gaixotasun medikoen eta ohiko amatasun-zaintzen tratamendua jasotzeko, baldin eta bisitaren arrazoia ez bada berariaz erditzeko edo tratamendu bat jasotzeko. Gaixotasun kronikoren bat izanez gero eta ohiko zaintza behar bada (adibidez, dialisia behar dutenek), jatorrizko herrialdeko baldintza berberetan jasoko da tratamendua.

Europako Batzordearen esteka honetan [EOTak Erresuma Batuan eskaintzen dituen zerbitzu](#)ei buruzko datu espezifiko gehiago daude.

2.3.3. EOT erabiltzeko murrizketak

EOTak ez ditu honako behar hauek estaliko:

- Istripu edo gaixotasun larriren bat izanez gero, jatorrizko herrialdera aberriratzea; izan ere, aseguru mediko gehigarri bat beharko da.
- Osasun pribaturako edo asistentzia mediko programaturako sarbidea.
- Galdutako edo lapurtutako norberaren gauzak.

Informazio gehiago nahi izanez gero, NHSren (National Health Service) [esteka hau](#) bisitatu daiteke.

¹⁰EOT: [Europako Osasun Txartela](#).



2.3.4. EOTa galtzea edo lapurtzea

Erresuma Batura egindako bisitan EOT galdu edo lapurtuz gero, beste bat eskatzeko, herrialde jaulkitzaileko dagokion erakundeari jakinarazi beharko zaio, behin-behineko ordezeko ziurtagiria (PRC) eskatzeko

Paziente batek ez badu EOT, PRaC edo S2 inprimakirik, ordainketa-tasak % 150ekoak izango dira NHSren tasa nazionalarekin alderatuta.

2.3.5. Gomendagarria al da bidaia-aseguru bat kontratatzea?

Gobernu britainiarrek eta Espainiako Atzerri Ministerioak azpimarratu egiten dute EOT ez dela bidaia-aseguruaren alternatiba bat.

Horregatik, osasun-txartelaren balioa gorabehera, [Erresuma Batuk](#) eta [Espainiako Kanpo Gaietarako Ministerioak](#) berak gomendatzen dute ahalik eta estaldura zabalena eskaintzen duen bidaia-aseguru bat kontratatzea.

2.3.6. Nazio bakoitzari buruzko informazio berezia

Erresuma Batuko nazio bakoitzaren berezitasunei buruzko informazioa jaso nahi izanez gero, honako esteka hauek bisita daitezke:

- [Ingalaterran](#) osasunerako sarbideari buruzko informazioa
- [Galesen](#) osasunerako sarbideari buruzko informazioa
- [Eskozian](#) osasunerako sarbideari buruzko informazioa
- [Ipar Irlandan](#) osasunerako sarbideari buruzko informazioa

2.4. Erresuma Batura ondasunak, animaliak eta dirua ekartzea

2.4.1. Erresuma Batura ondasunak ekartzea

Erresuma Batura ekarri daitezke atzerriko zenbait produktu, zergak edo muga-zergak ordaindu behar izan gabe, baldin eta norberak erabiltzeko badira ('personal allowance').

Zergarik edo muga-zergarik ordaindu gabe ekarri daitezkeen ondasunen kopurua honako hauen arabera da:

- [Jatorrizko herrialdea/lurraldea](#)
- [Helmuga Britainia Handia bada](#) (Ingalaterra, Gales eta Eskozia)
- [Helmuga Ipar Irlanda bada](#); izan ere, Ipar Irlandako protokoloak ([Northern Ireland Protocol](#)) estatus berezia ematen dio Ipar Irlandari, eta salgaien merkatu bakarrarekin eta aduana-batasunarekin lotutako EBko arau mugatu batzuen mende geratzen da.

Aduanan salgaiak deklaratzeko

Erresuma Batuko muga zeharkatu aurretik, produktu hauek [deklaratu](#) behar dira:

- Baimendutako zenbatekoa edo kopurua gainditzen dutenak
- [Debekatuta daudenak edo mugak dituztenak](#).

Baimendutako zenbatekoa edo kopurua gaindituz gero, bidaiariak kategoria horretako mota bereko ondasun guztiei dagozkien zergak eta muga-zergak ordaindu beharko ditu.



Produktuak online deklaratu daitezke Erresuma Batura iristeko eguna baino 72 ordu lehenago arte.

2.4.1.1. *Merkataritza-ondasunak (salgaiak ekipajea) eramanez gero*

Aduanari jakinarazi behar zaio (deklaratu) Britainia Handira merkataritza-ondasunak¹¹ eramaten badira

- ekipajea
- ibilgailu txiki batean ([small vehicle](#)), hau da, 9 pertsona baino gutxiago eramateko eta 3,5 tona edo gutxiagoko ibilgailu batean.

Merkataritza-ondasunak eramanez gero, **aduanan dena deklaratu behar da**, baldin eta honako hauek badira:0}

- **Britainia Handian** balioa, guztira, 1.500 £ baino handiagoa bada.
- **Ipar Irlandan** balioa, guztira, 837 £ baino handiagoa bada.
- **Zerga bereziak**, **murritzak** edo **kontrolatuak** dituzten produktuak.
- 1.000 kilo baino gehiago pisatzen duten produktuak.

Ipar Irlandaren eta EBren artean ekipajeko merkataritza-ondasunen mugimenduei buruzko arauak [ez dute aldaketarik izango](#) 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera. Ekipajeko salgaiak 873 £-tik beherako balioa badute, ez badu zerga berezirik ordaindu behar, eta 1000 kilogramo baino gutxiago pisatzen badu, sarrera-portuan [ahozko deklarazioa](#) baino ez da egin behar.

Ekipajeko salgaiari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, [esteka hau](#) dago eskuragarri

2.4.1.1.1. *Merkataritza-erakusgaiak ekipajea*

EBren eta Erresuma Batuaren artean egiten diren salgaien mugimendu guztiak inportazio eta esportaziotzat hartzen dira; beraz, ekipajea **merkataritza-erakusgaiak** eramaten badira, horiek ere aduanetako betebeharren mende egongo lirateke.

2.4.2. Erresuma Batura animaliak ekartzea

- Zaldiak Erresuma Batura eta Erresuma Batutik eramateari buruzko [gida eguneratua](#) Galzorian dauden espezieak (landareak, animaliak eta haien produktuak) Erresuma Batura eta Erresuma Batutik eramateari buruzko [gida eguneratua](#).

2.4.2.1. *Erresuma Batura maskotak ekartzea*

Hainbat arau daude helmugaren arabera:

- [Britainia Handira](#) (Ingalaterra, Gales eta Eskoziara) maskotak (txakurrak, katuak eta hudoak) ekartzea.
- [Ipar Irlandara](#) maskotak (txakurrak, katuak eta hudoak) ekartzea. **Erresuma Batura eskudirua ekartzea**

¹¹ Saltzeko ondasunak dira merkataritza-ondasunak.



EBtik Erresuma Batura 10.000 € baino gehiago eskudirutan dakarten pertsonak aduanan deklaratu egin beharko dute.0} Informazio gehiago nahi izanez gero, [esteka hau](#) dago eskuragarri

2.5. Erresuma Batuan gidatzea

2.5.1. Gidabaimena Britainia Handian

Britainia Handitik kanpoko gidabaimena duten bisitariek ez dute beharko Nazioarteko Gidatzeko Baimena (IDP ingelesez) Britainia Handian gidatzeko.

Britainia Handitik, Ipar Irlandatik eta EB/EEEtik kanpo baliozko gidabaimena dutenek Erresuma Batuan sartzen direnetik [12 hilabetez](#) gidatu ahal izango dute gehienez. 12 hilabeteak igaro ondoren, [behin-behineko gidabaimena](#) eskatu eta Britainia Handian gidatzeko azterketa teorikoa eta praktikoa gaintitu beharko dute.

[Jersey, Guernsey edo Man uhartean](#) edo 'designated countries'¹² direlakoetan lortutako gidabaimena dutenek ere gehienez 12 hilabetez gidatu ahal izango dute gidabaimen horrekin, baina gidabaimen britainiarra lortu nahi badute, ez dute gidatzeko azterketa berriz egin beharko.

Hala ere, prozesu hori ez da beharrezkoa izango EBko edo EEEko herrialdeek emandako gidabaimena duten herritarrentzat; izan ere, baimena erabiltzen jarraitu ahal izango dute iraungitzen ez den bitartean. EBko gidabaimena dutenek [Erresuma Batuko gidabaimena](#) eskuratu beharko dute, baldin eta lanpostu batean gidabaimen britainiarra eskatzen bada, eta ez da beharrezkoa izango azterketa berriz egitea.

EBko baimena dutenek 70 urte bete arte erabili ahal izango dute Britainia Handian. Urte horiek bete ostean, EBko gidabaimenaren ordez baimen britainiarra eskuratu beharko dute, [azterketa berriz egin behar izan gabe](#).

Europako baimena duten eta 67 urterekin Erresuma Batuko egoiliar egiten diren pertsonak¹³ gehienez 3 urtetan erabili ahal izango dute Europako gidabaimena. Behin iraungita, baimen britainiarra eskuratu beharko dute.

Gobernu britainiarrak [online baliabide](#) hau du gidabaimena Erresuma Batutik kanpo lortu dutenek zenbat denboraz erabili dezaketen egiazta dezaten.

2.5.2. Gidabaimena Ipar Irlandan

Ipar Irlandan, EB/EEEko baliozko gidabaimena duten herritarrek [gidatzen jarraitu ahal dute gidabaimena iraungitzen ez den bitartean](#). Ipar Irlandako baimena eska dezakete, baita euren gidabaimena iraungi ondoren ere

Britainia Handian ez bezala, Ipar Irlandan Europako baimen bakarra erabili ahal izango da, 66 urte bete arte, Ipar Irlandako beste batekin trukatu gabe.

12 Honako hauek dira 'designated countries' direlakoak: Andorra, Australia, Barbados, Britainia Handiko Birjina uharteak, Kanada, Malvinak, Faroa uharteak, Hong Kong, Japonia, Monako, Zeelanda Berria, Korea, Singapur, Hego Afrika, Suitza, Zimbabwe

¹³ Gobernuak Britainia Handiko egoiliartzat (Resident of Great Britain) jotzen ditu [urte natural bakoitzeko 185 egunez](#) Erresuma Batuan bizi direnak. Ez da nahasi behar Erresuma Batuan bizitzeko eskubidearekin ('[right to reside](#)').



2.5.3. Ibilgailuaren aseguru

Ibilgailuaren aseguru EBkoa, Andorrakoa, Islandiakoa, Liechtensteinekoa, Norvegiakoa, Serbiakoa edo Suitzakoa bada, aseguru-txartel berde bat edo baliozko beste aseguru-proba bat eraman behar da.

Baliozkoa izateko, ibilgailuaren aseguruaren hornitzaileak emandako beste agiri bat ere behar da, honako hauek jasotzen dituen:

- Aseguru-hornitzailearen izena.
- Matrikula-zenbakia edo ibilgailua identifikatzeko beste daturen bat.
- Aseguruaren estalduraren iraupena.

Hortaz, bidaiari egin aurretik, ibilgailuaren aseguru-hornitzailearekin harremanetan jartzea gomendatzen da.

Ibilgailua beste edozein herrialdetan aseguraturuta badago, honako hau egin beharko da herrialdea 'green card' sistemaren kide bada edo ez bada:

- Herrialde kidea bada, 'green card' bat eraman beharko da.
- Herrialde kidea ez bada, ibilgailuak Erresuma Batuko aseguru beharko du.

2.6. Telefono mugikorra erabiltzea: ibiltaritza

Erresuma Batuan eta EBn, kontratatzen den operadorearen arabera ordainduko dira deiak, testu-mezuak eta datu mugikorrek, baita ibiltaritzari dagokiona (roaming) ere.



3. EU SETTLEMENT SCHEME

2020ko abenduaren 31 baino lehenagotik Erresuma Batuan bizi diren EBko, EEEko eta Suitzako herritarrek eskubide eta estatus berberak izango dituzte 2021eko ekainaren 30era arte

EU Settlement Scheme-ren eskaera onartu zaienek Erresuma Batuan bizitzen eta lan egiten jarraitu ahal izango dute 2021eko ekainaren 30etik aurrera.

Bi estatus mota daude:

- **Settled Status**
- **Pre-Settled Status**

Eskaera egitean, ezin da bien artean aukeratu. Lortzen den estatusa eskatzaileak eskabidea aurkezten duen unean Erresuma Batuan bizitzen daraman denboraren araberakoa da. Eskubideak lortzen den estatusaren araberakoak izango dira.

3.1. Settled Status

Oro har, eskatzaileak estatus hori lortuko du baldin eta Erresuma Batuan 5 urtez jarraian bizi izan bada, **'bizileku iraunkorra'** (continuous residence) izenez ezagutzen dena.

Horrek esan nahi du 5 urtez jarraian bizi izan dela Erresuma Batuan, Kanaleko uharteetan edo Man uhartean, gutxienez 6 hilabetez 12 hilabeteko epean. Honako hauek dira [salbuespenak](#):

- 12 hilabetez bertatik kanpo egotea arrazoi garrantzitsu batengatik (adibidez, erditzea, gaixotasun larria, ikasketak, lanbide-heziketa edo lanpostu bat atzerrian).
- Nahitaezko soldadutza, edozein dela iraupena.
- Atzerrian denbora eman izana Koroaren zerbitzura, edo Koroaren zerbitzari baten senitarteko gisa. Atzerrian denbora eman izana indar armatuetako kide gisa, edo indar armatuetako norbaiten senitarteko gisa.

2020ko abenduaren 31 baino lehenagotik Erresuma Batuko egoiliarra izan den pertsona batek Settled Status lor dezake, baldin eta bi baldintza hauek betetzen baditu:

- Garai batean 5 urtez jarraian Erresuma Batuan bizi izana. Orduetik 5 urtez baino gehiagoz Erresuma Batutik atara ez izana.

Settled Status lortzen dutenak Erresuma Batuan gera daitezke eperik gabeko denbora-tartean. Halaber, herritartasun britainiarra eskatzen saiatu daitezke, [baldin eta beharrezko baldintzak betetzen badituzte](#).

3.1.1. Informazioa Indefinite Leave to enter or Remain (ILR) duten pertsonentzat

Immigrazio-estatus hori duten pertsoneri [gobernu britainiarrak](#) aholkatzen die eska dezatela Settled Status EU Settlement Scheme delakoaren barruan; izan ere, ILR dutenak gehienez ere bi urtez jarraian egon daitezke Erresuma Batutik kanpo.

Settled Status edukiz gero, gehienez 5 urtez jarraian egon ahal izango dira Erresuma Batutik kanpo (Suitzako herritarrak gehienez 4 urtez jarraian).

Bestalde, ILR dutenek ez dute frogatu beharko 5 urteko bizileku iraunkorra betetzen dutenik Settled Status lortzeko.



3.2. Pre-Settled Status

Eskatzaileak, esakera aurkezteko unean, ez badu 5 urteko bizileku iraunkorra, oro har, pre-Settled Status lortu ahal izango du, betiere:

- 2020ko abenduaren 31 baino lehenagotik bizi bada Erresuma Batuan.
- 2020ko abenduaren 31 baino lehenagotik Erresuma Batuan bizi den EBko, EEEko edo Suitzako herritar baten hurbileko senitarteko gisa aurkeztu badu eskaera.

Pre-Settled Status lortzen dutenak 5 urtez egon daitezke Erresuma Batuan, estatus hori lortu zuten datatik aurrera. Erresuma Batuan 5 urtez jarraian bizi eta 12 hilabeteko epean sei hilabetez baino gehiagoz kanpoan egon ez badira, Settled Status delakora aldatzeko eskatu ahal izango dute.

Lege-aholkularitzek emandako informazioaren arabera ([Rödl & Partner, Free Movement](#)), 6 hilabete horiek ez dute zertan jarraituak izan. 12 hilabeteko epean atzerrira egindako bidaia labur guztien iraupena 6 hilabetetik gorakoa bada, pre-Settled status duen pertsona batek aurrerago Settled Status eskatzeko eskubidea galdu dezake. Azpimarratu behar da, halaber, 12 hilabeteko aldia ez dela urte natural bat, baizik eta edozein datatan hasi den 12 hilabeteko aldi jarraitua.

Londresko Biltzarraren webgunean ([ikus esteka](#)) diotenaren arabera, pre-Settled Status duen norbaitek aurrerago Settled Status lortzeko eskubidea izan dezan, Erresuma Batutik kanpo joan daiteke 12 hilabetez, honako arrazoi justifikatu hauengatik:

- haurdunaldiak eta erditzeak
- gaixotasun larriak
- ikasketak edo lanbide-heziketa
- lan-lekualdaketak atzerrira
- kasu batzuetan, [COVID-19aren pandemia](#) dela eta.

Pre-Settled Status duen pertsona bat 12 hilabete baino gehiagoz joaten bada kanpora soldadutzagatik edo Koroaren zerbitzura egoteagatik, ez da bizileku iraunkorraren etenaldizat hartuko, eta Settled Status eskuratzeko aukera izango du.

Eskatzaileak, 2021eko ekainaren 30a baino lehenagotik 5 urteko bizileku iraunkorra betetzen badu, erabaki dezake Settled Status lortzeko eskaera aurkeztu arte itxarotea. Horrela, Settled Status zuzenean lortuko du, aurretik pre-Settled eskatu behar izan gabe.

3.3. Pre-Settled eta Settled Status estatusekin lortzen diren eskubideak

- Erresuma Batuan lan egitea.
- Osasun Zerbitzu Nazionala, ingelesez NHS (National Health Service), doan erabiltzea. Horretarako, aurretik tokiko osasun-zentroan erregistratu behar da. Erresuma Batuko ikastetxeetan izena ematea edo ikastea: 2021-22 ikasturteetik aurrera, Settled/pre-Settled Status duten ikasleek [bertako ikasleen tasa akademiko berberak izango dituzte](#) eta [ikasleentzako bekak eskuratu ahal izango dituzte](#). Bi kasuetan, honako baldintza hau bete beharko dute ikasleek: aurretik gutxienez hiru urtez EBn, EEEen, Suitzan eta Erresuma Batuan (Gibraltar barne) bizitzea.
- Funtz publikoak eskuratzeko (hala nola onurak eta pentsioak), [baldintza batzuk](#) betetzen badira. Erresuma Batuan barruan bidaiatzea eta herrialdetik irtetea (denbora-muga batzuk daude, pre-Settled edo Settled Status galdu nahi ez bada).



3.3.1. Sufragio aktiboko eskubidea

Gobernu britainiarrak jasotzen duenaren arabera, Erresuma Batuan bizitzeko eskubidea (Right to Reside) duten EBko herritarrek hauteskunde batzuetan botoa emateko eskubidea izango dute.0} Pre-Settled edo Settled Status lortu dutenek edo ILR (Indefinite Leave to Remain) dutenek honako hauteskunde hauetan bozkatu ahal izango dute:

- [Tokiko hauteskundeak](#) Ingalaterran, Galesen, Eskozian edo Ipar Irlandan.
- [Eskoziako Parlamentua](#)
- [Ipar Irlandako Biltzarra](#)
- [Galesko Parlamentua \(Senedd\)](#)
- [Tokiko alkatetza batzuk](#), [Londreseko alkatetza eta Londreseko Biltzarra](#)
- [Police and Crime Commissioners Ingalaterran eta Galesen](#) (Polizia-komisario orokorrak)
- [Erreferendumak](#)

Erresuma Batuan bizi diren EBko herritarrek (Irlandako, Zipreko eta Maltako errepubliketako herritarrek izan ezik) [ezin izango dute bozkatu Erresuma Batuko hauteskunde orokorretan.](#)0}

3.3.2. Sufragio pasiboko eskubidea

Pre-Settled edo Settled Status- lortu duten pertsonen euren hautagaitza aurkezteko eskubidea izango dute, honako hauteskunde hauetan:

- [Combined Authority Mayoral Elections](#) Ingalaterran¹⁴
- [Greater London Authority \(GLA\) hautatzeko hauteskundeak](#). Horien barnean sartzen dira:
 1. Londreseko alkatetzarako hauteskundeak
 2. Londreseko 14 barrutiak ordezkatzeko dituen Biltzarreko (Constituency Member election to the London Assembly) kide izateko hauteskundeak
 3. Londres osoa ordezkatzeko dituen Biltzarreko (London-wide members) kide izateko hauteskundeak
- [Tokiko hauteskundeak Ingalaterran eta Galesen](#) (Local Elections in England and Wales)
- [Barruti eta kontseilu komunitarioetarako hauteskundeak Ingalaterran eta Galesen](#)
- [Eskoziako Parlamentutako hauteskundeak](#)
- [Eskoziako udal-hauteskundeak](#) (Local Council Elections)
- [Galeseko Parlamentutako hauteskundeak \(Senedd\)](#)
- [Ipar Irlandako Biltzarra](#)
- [Ipar Irlandako udal-hauteskundeak](#) (Local Council Elections)
- [Police and Crime Commissioners-erako hauteskundeak](#) Ingalaterran eta Galesen (Polizia-komisario nagusiak)

Pre-Settled edo Settled Status duten EBko herritarrek ezingo dira [Erresuma Batuko Hauteskunde Orokorretara](#) aurkeztu.

Ingalaterrako, Galeseko eta Eskoziako sufragio aktiboari eta pasiboari buruzko eguneratze berriei eta informazio gehigarriari buruzko informazioa eskuratzeko, gomendatzen da Electoral Commission batzordearen webgunea bisitatzea (ikusi [esteka](#)).

Ipar Irlandarako, Electoral Office of Northern Ireland (EONI) webgunea bisita daiteke (ikusi [esteka](#))

¹⁴ Agintaritza konbinatu bat (Combined Authority) Ingalaterran 2009ko Tokiko Demokrazia, Ekonomiaren Garapen eta Eraikuntzari buruzko Legeak sartu zuen tokiko gobernu-erakunde mota bat da.



3.3.3. Erresuma Batutik denboraldi luzeetan irteten behar izanez gero.

- Settled Status duen pertsona batek 5 urte igaro ditzake jarraian Erresuma Batutik kanpo immigrazio-estatus hori galdu gabe.
- Pre-Settled Status duen pertsona batek 2 urte igaro ditzake jarraian Erresuma Batutik kanpo immigrazio-estatus hori galdu gabe.

Dena dela, lehen aipatu den bezala, pre-Settled Status duen pertsona batek aurrerago Settled Status eskuratu nahi badu, ezingo da Erresuma Batutik irten 6 hilabete baino gehiagorako 12 hilabeteko epean.

3.3.4. Seme-alabak izanez gero

Norbaitek Settled Status lortu badu, Erresuma Batuan jaiotako seme-alaba guztiak automatikoki hiritar britaniarrak izango dira, bertan bizi diren bitartean.

Eskatzaileak pre-Settled estatusa lortzen badu, Erresuma Batuan jaiotako edozein seme-alabak automatikoki pre-Settled Status eskuratzeko aukera izango du. Seme-alabek herritartasun britaniarra lortzeko, beste gurasoak beharrezkoak diren baldintzak bete behar ditu.

3.3.5. Senitartekoak Erresuma Batura ekarri nahi izanez gero

Pertsona EBko, EEEko edo Suitzako herritarra bada, hurbileko senitartekoak¹⁵ harekin bildu daitezke, baldin eta:

- Pertsona hori Erresuma Batuan bizi bazen 2020ko abenduaren 31 baino lehenagotik.
- Harremana 2020ko abenduaren 31 baino lehen hasi bazen (data horren ondoren jaiotako edo adoptatutako haurra izan ezean).Oraindik ere harremana badute sarrera-datan eta immigrazio-estatusa eskatzen denean.

Gainerako senitartekoek (extended family) pre-Settled/Settled Status eskatu ahal izango dute baldin eta Erresuma Batuan bizi baziren 2020ko abenduaren 31 baino lehenagotik.

Hurbileko senitartekoa EBkoa, EEEkoa edo Suitzako bada, eskaera bat bidali dezake EU Settlement Scheme delakora Erresuma Batutik kanpo, baldin eta baliozko pasaportea edo txip biometrikoa duen nortasun-agiria badu.

Hurbileko senitartekoa ez bada EBkoa, EEEkoa edo Suitzako, eskaera bat bidal dezake EU Settlement Scheme delakora Erresuma Batutik kanpo. Honako agiri hauek onartzen dira:

- Bizileku-txartela.
- [Bizileku iraukorreko](#) txartela.
- [Bizileku-txartel bideratua](#).

Osterantzean, familia-baimena eskatu beharko du Erresuma Batura etortzeko, eta, behin Erresuma Batura iritsita, pre-Settled/Settled Status eskatu ahal izango du.

Senitarteko bat 2021eko apirilaren 1ean edo geroago elkartzen bada familiarekin, eskaera bat bidali behar du EU Settlement Scheme delakora, Erresuma Batura iritsi eta hurrengo 3 hilabeteetan. Adibidez, 2021eko ekainaren 15ean iristen bada, eskaera 2021eko irailaren 15a baino lehen aurkeztu behar du.

¹⁵ **Hurbileko senitartekotzat** jotzen dira EBko herritarraren ezkontideak, izatezko bikoteak, seme-alabak edo bilobak (21 urtetik beherakoak edo 21 urtetik gorako mendekoak) eta haren mendeko gurasoak edo aitona-amonak, haren nazionalitatea edozein dela ere.



Senitartekoren batek ezin badu EU Settlement Scheme lortu, baliteke familia-bisa batekin sartu ahal izatea Erresuma Batuan.

3.4. Familia-bisa motak

Bi baimen mota daude:

3.4.1. EU Settlement Scheme family permit

Honako hauek eskatu dezakete EU Settlement Scheme family permit:

- EBko, EEEko edo Suitzako herritarra den [hurbileko senitarteko](#) bat dutenek, baldin eta senitarteko hori 2020ko abenduaren 31 baino lehenagotik bizi bada Erresuma Batuan.
- [Herritar britainiarra den hurbileko senitartekoren batekin](#) EBn, EEEn edo Suitzan bizi izan direnek.
- EBko, EEEko edo Suitzako herritar baten hurbileko senitarteko gisa Erresuma Batuan geratzeko eskubidea dutenek, baldin eta senitarteko hori hil bada, Erresuma Batua utzi badu edo harekin ezkontza- edo familia-harremana hautsi badu ('[Retained right of residence](#)').

6 hilabeteko iraupena dute eta lan egiteko eta ikasteko aukera ematen die hura dutenei, bai eta epe horretan nahi adina aldiz sartu eta irteteko aukera ere, honako kasu hauetan izan ezik:

- a. Erresuma Batura 2021eko apirilaren 1a baino geroago iritsi badira.
- b. Eskaera iritsi baino hiru hilabete lehenago onetsi bada. Kasu horretan, baimenak 4 hilabeteko iraupena izango du iritsiera-egunetik aurrera.

3.4.1.1. *Ipar Irlandako senitarteko batekin bilduz gero*

Ipar Irlandako senitarteko batekin biltzeko baldintzak desberdinak dira; izan ere, senitarteko hark honako hauek [bete behar ditu](#):

- Ipar Irlandan jaiotakoa izatea.
- Nazionalitate britainiarra edo irlandarra izatea edo nazionalitate bikoitza (britainiarra eta irlandarra).

Bestalde, jaiotzeko unean senitartekoaren aita edo amak:

- Nazionalitate britainiarra izan behar zuen.
- Nazionalitate irlandarra izan behar zuen.
- Nazionalitate bikoitza (britainiarra eta irlandarra) izan behar zuen.
- Ipar Irlandan bizitzeko eskubidea izan behar zuen, murrizketarik gabe, bere egonaldian zehar.

3.4.2. EEA Family Permit

[EEA family permit](#) eskatu dezake EBko, EEEko edo Suitzako herritar baten hurbileko senitarteko batek, baldin eta senitarteko hori pertsona kualifikatu bada eta Erresuma Batuan bizileku iraunkorra izateko eskubidea badu.

Honako hauek ere eskatu dezakete:

- '[Derivative right of residence](#)' bat dutenek: hori herritar britainiarren edo EBko, EEEko edo Suitzako herritarren lehen mailako zaintzaileak izan direnek izaten dute; zaintzaile horien seme-alabek; edo EBko, EEEko edo Suitzako herritar baten seme-alabek, aurretik Erresuma Batuan lan egin badute.



- EB/EEEn edo Suitzan herritar britainiarra den senitarteko batekin bizi izan direnek eta '[Surinder Singh](#)' eskatu dezaketenek.
- '[Retained right of residence](#)' bat dutenek.

Halaber, Erresuma Batuan [bizitzeko eskubidea](#) (Right to Reside) izan behar dute 2020ko abenduaren 31 baino lehen.

Harremana honela froga daiteke, besteak beste: jaiotza-ziurtagiriaren bidez; edo izatezko bikotea bada, [bankuko fakturen](#) edo [diru-transferentzien](#) bidez, ekonomikoa aldetik beste pertsonaren mende dagoela erakusteko. [Ospitaleko kontsulten gutunak](#) ere onartzen dira, osasunera sartzeko beste pertsonaren mende dagoela erakusteko.

Eskaera egitean, herritar britainiarra den senitartekoak honako baldintza hauek bete behar ditu:

- Erresuma Batuan 2020ko abenduaren 31 baino lehenagotik bizi behar du.
- Erresuma Batuan bizi zenean lanean, lan bila edo ikasten aritu behar zuen edo autosufizientea izan behar zuen.
- Erresuma Batuan bizileku iraunkorrerako eskubidea izan behar du.

Normalean [6 hilabete irauten dute](#), baina baliozkoak izateari utziko diote [2021eko ekainaren 30etik](#) aurrera, nahiz eta oraindik baimenean denbora geratzen den.

3.5. Ordainketa-tasak

EU Settlement Scheme delakoaren pean estatusa eskatzea (familia-eskaerak barne) **doakoa** da.

3.6. Nola egin eskaera

Settled/pre-Settled Status eskatzeko bi aukera daude:

1. Gobernu britainiarraren web-baliabide hau erabilita (ikusi [esteka](#)).
2. 'EU EXIT: ID Document Check' aplikazioa erabilita (ikusi [esteka](#) deskargatzeko).

© Agencia Vasca de Internacionalización
Basque Trade and Investment S.A.



**BasqueTrade
& Investment**

Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO
spri
TALDEA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
BASQUE GOVERNMENT